

Demokraziarako eskutitzak

Deia, 1977-07-09.

Egunero hartzen ditugu hemen eskutitzak.

Batzuk, gorazarrea egiten, eta gogoberotzen; beste batzuk, zuzenketak egiten, eta oraindik beste batzuk haserrerren bat erakusten.

Haserre hoietako bat edo bestek iraina ere bota digu.

Neri, hain zuzen.

DEIA-ko H dela-ta, norbaitek "Judas" deitu nau.

Koldar honek ez du mensaje hau izenpetzen.

Baina ez dut eskutitz hoietan luzatzeko asmorik. Ba da egun hoietan egitan kezkatu nauen beste gertakizun bat. Eta gaia denontzat jakingarria denez, apur bat aztertu nahi dut sail hontan.

DEIA-k gure Herriaren egunkaria izan nahi du. Herri osoarena. Zorionez, herri hontan ez dugu denok berdin pentsatzen. Diktatura hura betiko joana nahi genuke. Orduan, gauza berak berdin ikusten ez ditugunez, bakoitzak ikusten dituen bezala esateko eskubidea du, eta DEIA-k, herritarrei bere ikuspegiak erakusteko bideak jarri nahi dizkie. Hau da, gainera, gure eginbeharretako bat.

Gure irakurleen asmoak eta iritziak etorri bezala agertzen ahalegintzen gara. Eta, hala, joan den egunean norbaitek izenpetzen zuen eskubitari lekua eman genion. Euskara politean, bere herrian gertatzen ari zen zerbait salatzen zuen.

Orain arte ez da ezer gertatu.

Baina eskutitza DEIA-n agertu zen egun berean, dei bat izan nuen. Deitzen zuena, mindua zegoen. Eskutitz hortan esandakoa ez zen, nonbait, egia. "Egia"-k denontzat aurpegi berdina ez duenez ez dugu oraindik istilurik sumatzen. Nik, honen puntua erakusteko leku berdinean tokia eskaini nion.

Ez zitzaion gustatu; gu bertara joan eta esaten zuena berehala egiztatzea eskatu zidan.

Guk, egia esan, ez dugu gai hoiek guziak aztertzekeo betarik. Hemen adierazi nahi dudana da, demokraziak, beste alderdi on askorekin batera, ba dituela arrixku hoiek.

Demokraziak funtzionatuko badu, bata bestearen usteon eta fidaketan oinharritu behar du. Eskutitzak izenpetuak datozenez gero, esaten dena zuzena bezala hartzen dugu. Gero, beste iritzi bateko norbait bada, honi ere toki berean, honen ikuspegia erakusteko tokia eskaintzen diogu.

Hau da gure jokoaren araua.

Gu, egunkarian, ez gara epaile; ez gara inoren agintari, inoren mirabe. Guk, egia bila, batena eta bestearena agertzeko bideak jarri behar ditugu. Irakurleak berak behar ditu ondorioak.

Arazo larri bat sortzen denean, gure kazetariak egingo dute azterketa. Badaiteke hau beti eta denontzat nahikoa ez izatea.

Baina demokraziak bere ahuleziak ba ditu.
Gehien guri, kazetariei, irakurleak eskatzeko eskubidea duena, fede ona da.
Eta egia biltzeko asmoa.
Baina milagrorik ez.